

3

IKASKETA ERRAZTEKO METODOLOGIAK ETA ESTRATEGIAK

3.1. LAN-PROIEKTUAK

Estrategiaren deskribapena:

Ezagutzaren ikuspegi orohartzaile eta diziplina anitzeko batean oinarritzen den metodologia da. Proiektuei esker, adimen-gaitasun handiko ikasleek zenbait sakontasun-, erritmo- eta gauzatze-mailatan egin dezakete lan. Proiektuek aukera ematen dute informazioa lortzeko eta tratatzeko hainbat modu erabiltzeko, eta eduki berbera modu batean baino gehiagotan adierazteko. Ikasleek lankidetzaren bidez, interaktiboki eta elkarlanean ikasiko dute. Abiapuntutzat ikasleen interesak hartzen dira, ezagutzak benetako munduan erabiltzea nahi baita. Gaur egun, proiektuen metodoa asko erabiltzen da ikasketxe askotan, adimen anitzen filosofian oinarrituriko programetan, aurkikuntzaren bidezko ikasketa ahalbidetzeko helburuarekin. Lan-proiektuak egin baino lehen, hau behar da: Arlo bateko edo gehiagoko edukiak programatu, bai eta eduki horien denboralizazioa eta ebaluazioa ere, lan-proiektuetan oinarriturik. Ikasleei informazioaren eta komunikazioaren teknologia ematea, bai eta, besteak beste, monografikoak eta aldizkari espezializatuak ere. Teknikak irakastea, informazioa maneiatzeko eta tratatzeko, lana antolatzeko, ikerketa-metodoak gauzatzeko...

Estrategia garatzeko baldintzak:

Ezaugarriak	Arlo edo diziplina guztiak edo batzuk orokorrean har daitezke. Ikasleen motibazioa eta interesa dira abiapuntua. Ikasleek aktiboki ikasten dute. Ekintza etengabea da.
Eginkizunak	Ikasketetan sustatzaile, koordinatzaile eta bitartekariak diren aldetik, irakasleek hau egingo dute: Lana bideratu. Horretarako, informazio egokia emango dute, eta asmatzei eta zailtasunei buruz hausnartzeko eredu zehatzak irakatsiko. Azken batean, bitartekariak izango dira ikasketan.
Prozesua	Proiektu bakoitza gauzatuko bada, urrats hauek egin behar dira: Proiektuaren helburua erabakitzea. Informazioa eta aukera guztiak bilatzea. Proiektua gauzatzeko lan-plan bat egitea. Diseinatutako planari jarraitzea. Egindako lana balioestea. Egindako lana ikaskideei aurkeztea edo haren berri ematea.
Ebaluazioa	Prozesu osoa ebaluatzeko, elementu hauek guztiak ebaluatu behar dira: Gaiaren aurkezpena. Irakasleak eta ikaskideek ebaluatuko dute. Banakako ekarpenak. Irakasleak ebaluatuko ditu. Proiektua edo gaiari buruz idatzitako materiala. Irakasleak ebaluatuko du. Ikasle bakoitzak autoebaluazioa egin beharko du. Taula bakoitzean, elementu bakoitza ebaluatzeko arrakasta- edo bikaintasun-irizpideak zehaztu beharko dira.

Estrategiaren alde onak, gaitasun handiekiko:

Ikuspegi orohartzailea erabiliz gero, errealitatea osotasun bat balitz bezala aurkez daiteke. Horri esker, gaitasun handiko ikasleek beren eskemetan oinarriturik eraiki ditzakete ezagutzak. Gainera, errealitatea osotasunean interpreta dezakete.

Lan egiteko modu horri esker, errazagoa izan daiteke edukiak ikasgelako kultura eta egoera desberdinetatik eskuratzea. Askotariko edukiak direnez, oso aberasgarria izan daiteke adimen-gaitasun handiko ikasleentzat.

Ikasleak dira irakaskuntza- eta ikasketa-prozesuko benetako protagonistak. Ikasleen autonomia sustatzeaz gain, ez dira aspertzen, eta ez da denbora galtzen.

Taldekatzeko hainbat aukera daude, gaiaren edo ikasleen beharren arabera. Horri esker, ikasketak al bait esanguratsuenak izango dira, eta horren ondorioz, eduki berriak ikasleen egitura kognitiboan txertatuko dira, diziplina batek soilik eskaintzen dituen bestelako interpretazio- eta adierazgarritasun-eremuetan.

3.2. TALDE ELKARRERAGILEAK

Estrategiaren deskribapena:

Talde elkarreragileak talde heterogeneoak dira, eta haietan, heldu batek baino gehiagok dinamizatzen du ikasleen lana.

Heldu horiek bi irakasle izan daitezke, edo irakasle bat eta beste esparru bateko profesional bat, edo irakasle bat eta boluntario bat.

Talde horietan, lau edo bost ikasle egongo dira. Kontuan izan behar da heterogeneoak izan behar dutela, generoari, ikasketa-mailari eta kultura-jatorriari dagokienez: “eguneroko lanean ikus daiteke askoz gehiago aurreratzen dutela elkarrekin, eta penagarria izango litzateke elkar aberasteko aukera hori galtzea” (Adell eta beste batzuk, op. cit.: s.p.).

Talde adina jarduera antolatzen dira, eta saioan zehar, taldeek jarduera guztiak egiten dituzte txandaka.

Estrategia garatzeko baldintzak:

Ezaugarriak	Ikasle-talde heterogeneoak. Irakasleak osatutako talde adina jarduera antolatzen ditu. Jarduera guztiak helburu berberak dituzte. Elkarrizketa, hausnarketa eta argudiaketa oinarrizko tresnak dira. Azaltzen duenak ikasten du, bai eta entzuten duenak ere.
Eginkizunak	Ikasgelako irakasle arduradunak jarduera didaktikoak programatu behar ditu, curriculum-helburuak kontuan harturik. Gainera, saioa dinamizatu eta denborak koordinatuko ditu. Irakasle titularrak lau edo bost lan prestatu behar ditu talde bakoitzarentzat, eta boluntarioa gidatu eta taldeak ebaluatuko ditu. Boluntarioak talde-lana eta elkarrekiko laguntza sustatu behar ditu ikasleen artean. Ikasleek zuzenean, aktiboki eta eginkizunak elkarrekin aldatuz hartuko dute parte: irakatsi eta ikasi egiten dute.
Antolaketa	4-6 pertsonako talde heterogeneoak. Pertsona heldu bat talde bakoitzean. Komeni da irakaslea libre egotea, dena aztertzeke eta edozein unetan laguntzeko. Taldeen denbora bat dute jarduera jakin bat edo jarduera-multzo bat egiteko. Ondoren, talde bakoitza beste boluntario batengana joan, eta beste jarduera batzuk egingo ditu.
Baliabideak	Ikasgelako materialak (jarduerak). Ikasle-talde adina pertsona heldu. Pertsona helduak: boluntarioak, ordu libreetan dauden irakasleak, pedagogo terapeutikoak, kultura arteko dinamizatzailea, hizkuntza-errefortzuko irakasleak, orientatzaileak...
Ebaluazioa	Irakasleak ezarritako irizpideen arabera ebaluatuko ditu ikasketak. Taldeen dinamizatzen dituzten helduek behaketak egin (elkarrekintza-motak, ikasleen jokabideak, jarrerak, portaerak, lana amaitu duten, amaitu ez duenak zergatik ez duen amaitu...) eta haien berri ematen diete irakasleei. Halaber, ikasleen ekarpenak jaso behar dira.
Heziketa	Dinamizatzaileek jakin behar dute zer espero den haiengandik. Gainera, taldeak dinamizatzeko estrategiak ezagutu behar dituzte. Irakasleek talde elkarreragileak zer diren jakin behar dute, eta zer oinarri teoriko duten. Praktikaren bat egin beharko dute, ondoren zer esanahi duten hausnartzeko. Gainera, komeni da benetako talde elkarreragileak aztertzea.

Estrategiaren alde onak, gaitasun handiekiko:

Estrategia hau inklusiboa da. Hortaz, ikasleak ez dira gaitasunen arabera bereizten; izan ere, bakoitzaren erritmoa eta ikasketa-maila errespetatzen dira, eta horren ondorioz, gaitasun handiak eta bikaintasuna ahalbidetzen dira.

Ikasgelan heldu bat baino gehiago dagoenez, adimen-gaitasun handiko ikasleek zenbait ikuspunturen berri izateko aukera dute.

Talde-lanean, ikasleen gaitasun pertsonaletara egokitutako jarduerak egin daitezke (sakontasuna).

Talde elkarreragileek pentsamendu sortzailea garatzen laguntzen dute, ikasleek lan mentala egin behar dutelako, askotariko jarduerak direlako eta heldu bat baino gehiago daudelako.

Bizikidetzaren hobetu, eta gizarte- eta emozio-alderdiak garatzen laguntzen dute, estereotipoak alde batera utzita eta banakako desberdintasunak errespetatuta.

Ikasgelako giroa aldatu egiten da, ikasleek ikasten baitute elkarlanean aritzen, elkarri laguntzen, besteen iritziak errespetatzen, konponbide sortzaileak ematen, bestelako ekarpenak onartzen...

Ikasgelan alderdi negatiboak (asperkizuna, errepikapenak...) desagerrarazten laguntzen dute.

3.3. TUTORETZA PERTSONALIZATUAK

Estrategiaren deskribapena:

Tutoretza-lanaren barruan, tutoretza pertsonalizatua ere egin daiteke talde-tutoretzarekin batera, baina ez talde-tutoretza ordezkatzeko.

Eredu honetan, tutoreak eta ikasleak osatutako binomioa nabarmentzen da; izan ere, prozesuak bi-biak hartzen ditu eta hau du helburu: ikaslea bere heziketaz arduratzea. Prozesu horretan, irakaslea laguntzaile bat da, eta ez aholkulari bat.

Batez ere, ikasleen gaitasunak sustatu nahi dira, eta beharrezko gaitasunak garatzea galaraz dezaketen egoerak prebenitu; besteak beste, ikasleak zailtasunik gabe gizartera daitezen eta prozesu akademiko ona izan dezaten.

Beharrezkoa da gaitasun handiko ikasleekin tutoretza-lana egitea; izan ere, batzuetan, ikasle horiek premia bereziak izan ditzakete, haien emozio-garapena, gizarteratze-maila, lanbide-etorkizuna eta abar direla eta.

Estrategia garatzeko baldintzak:

Ezaugarriak	<p>Beharrezkoa da konfiantza- eta elkarrekiko errespetu-giroa sortzea. Jarraipena egiteko eta arreta gehiago jartzeko konpromisoa dakar berekin.</p> <p>Egoera horretan, tutoreak eta ikasleak zuzeneko harremana dute, banakako gai akademikoez zein egoera pertsonal, sozial edo profesionalaz hitz egiteko.</p> <p>Tresna nagusia elkarrizketa da, helburu jakin bat izan behar duena.</p> <p>Elkarrizketaren xedeak:</p> <p>Datuak biltzea, informazioa egiaztatzea. Motibatzea edo adore ematea.</p> <p>Idea, iritzi edo ikuspuntuak trukatzeta.</p> <p>Datuak egiaztatzea.</p> <p>Pertsona lasaitzea edo hartzea.</p> <p>Erabakiak hartzen laguntzea.</p> <p>Informazioa ematea.</p> <p>Beste batzuk.</p>
Eginkizunak	<p>Tutorearen eskumenak.</p> <p>Entzuten, galdetzen, erantzuten eta interpretatzen jakitea.</p> <p>Harrera-ahalmena.</p> <p>Pertsonaren duintasuna eta autodeterminazio-gaitasuna errespetatzea.</p> <p>Benetako enpatia.</p> <p>Tutoretza-lanean, hau ez da gomendatzen:</p> <p>Moralizatzea.</p> <p>Paternalismoa.</p> <p>Jarrera inkisidorea, adiskidekeria.</p> <p>Zintzotasunik eza.</p>
Antolaketa	<p>Baldintzak:</p> <p>Borondatezko onespina.</p> <p>Elkarrizketak prestatzea.</p> <p>Komunikazio- eta elkarrizketa-giroa.</p> <p>Lan-plan bat ezartzea.</p> <p>Elkarrizketen erregistroa.</p> <p>Jarraipena.</p>
Ebaluazioa	<p>Beharrezkoa da elkarrizketak erregistratzea, laburpen-fitxen, galdera-sorten, bitxikeria-erregistroen bidez, besteak beste.</p>
Heziketa	<p>Desiragarria da tutoreek oinarritzko prestakuntza hau izatea: elkarrizketa pertsonaleko teknikak, laguntzaile/tutorearen zeregina, tutoretzak antolatzea...</p>

Estrategiaren alde onak eta lorpenak, gaitasun handiekiko:

Bigarren Hezkuntzan, hau da alde on nagusia: irakasleek hobeto jakin dezakete zer egoera pertsonaletan dauden ikasle horiek, eta zer premia, bizipen, zalantza eta asmo dituzten, besteak beste.

Tutoretzak aukera ematen die ezohizko proposamenak edo beste esparru batean nekez egin daitezkeen proposamenak egiteko, hobekuntza-proposamenak egiteko, lan-proiektuak proposatzeko, curriculum-proposamen desberdinak egiteko...

Prebentzio-neurria izan daiteke, gaitasun handiko ikasleei benetako harrera egiteko eta haien itxaropenak aztertzeke.

Halaber, arrakasta akademikoa lortzen lagun dezake, eta gizarte- eta emozio-oreka handiagoa izaten.

Elkarrizketen bidez, ikastetxearen, ikaslearen eta familiaren arteko ekintza koordinatua ezar daiteke, bai eta helburu komunak zehaztu ere.

Adimen-gaitasun handiko ikasleentzat, estrategia egokia da honetarako:

Autoirudia hobetzeko.

Nork bere arrakasta- eta porrot-esperientzia pertsonalak onartzeko.

Batzuetan entzuten dituzten iritzi ezegokiak lantzeko.

Informazioa lortzeko edo ikasgelan egiten ez diren galdera zailak egiteko.

Inguruko eta haien gizarte-egoeraren pertzepzioa lantzeko.

3.4. LANKIDETZAZKO IKASKETA

Estrategiaren deskribapena:

“Zenbait pertsona dira, helburu jakin batzuk lortzeko beharrezkoak diren jarduerak egiteko ahalmen operatiboa dutenak. Banakako lana eta taldeko lana elkarren osagarritzat hartzen dira, eta zereginak behar bezala koordinatu eta antolatzen dira. Gainera, elkarrekiko errespetu- eta konfiantza-giroa oso ona da”.

Ikasteko prozedura jakin batzuk dira. Prozedura horietan, talde heterogeneo txikiak eratzen dira ikasgelan, eta talde horietan, ikasleek lankidetzan aritu behar dute, eskolako lanak egiteko eta beren ikasketan sakontzeko.

“Desberdinak diren ikasleek elkarrekin ikas dezaten, beharrezkoa da norabide horretan aurrera egiteko baliabide didaktikoak bilatzea, garatzea eta egokitzea, gero eta errazagoa izan dadin ikasgela berebean askotariko ikasleak hartzea” (Pujolàs eta Lago, 2009).

Estrategia garatzeko baldintzak:

Ezaugarriak	<p>Elkarrekiko mendekotasun positiboa: taldeak helburu bat lortzeko lotuta daude, eta helburu hori da taldekide bakoitzak bere lanak egitea. Elkarrekiko mendekotasunaren adibide bat taldean laguntzeko prest egotea da: denek dute taldekideei laguntza eskatzeko eskubidea, eta denek dakite besteen laguntza-eskaerak aintzat hartzea kolektiboarentzat interesgarria dela. Horrenbestez, arloren batean <i>ahulenak</i> direnek adituak direnen laguntza jaso dezakete; aldi berean, prestatuenean beren ezagutzak finka ditzakete, dakitena ahoz adieraziz, azalduz, sinplifikatuz eta berrantolatuz, taldekideentzat ulergarria izan dadin (Jacob, 1988: 98)</p> <p>Banakako erantzukizuna: taldekide bakoitzak taldearen helburua lortzeko ardura du, eta denek parte-hartze berbera izan behar dute, indibidualismorik eta grupismorik egon ez dadin. M. Kagan-en <i>zenbakitutako buruak</i> jarduerak ezin hobe adierazten du nola gauza daitekeen banakako erantzukizunaren printzipioa. Hau da jarduera: irakasleak taldeak eratu, taldekideei zenbaki bana esleitu eta galdera bat egiten du (esate baterako, hiztegiari, gramatikari eta testu baten ulermenari buruzkoa). Talde bakoitzak erantzun bat ematen du. Ondoren, irakasleak zenbaki bat esan, eta zenbaki hori duten ikasleek galderari erantzuten diote, bakoitzaren taldean denen artean erabakitan erantzuna emanez (Crandall, 2000: 247)[7].</p> <p>Aldibereko elkarrekintza: lankidetzazko ikasketan, taldeak aurrez aurre egiten du lan, harreman estuan eta distantzia txikian. Hori dela eta –eta taldean elkarrekintza ona bermatze aldera (komunikazioa, trukea, atzeraelikadura, estimulu sortzaileak eta portaeraren kontrol autorregulatuak)– behar-beharrezkoa da taldean giro psikologiko egokia egotea: denek prest egon behar dute lan egiteko eta elkarri laguntzeko. Ez da harritzekoa: elkarrekin lan egiten duten pertsonen arteko harremanaren kalitateak itzelezko eragina du lanaren emaitzetan.</p> <p>Parte-hartze berdina: ikasketa-taldeetan, oso ohikoa da talde-jarduerari buruzko prestakuntzarik eza egotea. Ez da nahikoa ikasleak elkartzea, haien aurretiko esperientziak (eskolakoak zein bizitzakoak) talde-lanean ondo aritzeko behar duten guztia emango dietelakoan. Elkarrekintza negatiboa sortzeko arriskua oso handia da, batez ere luze iraungo duten taldeetan; hortik dator lankidetzazko ikasketak ikasleen <i>gizarte-gaitasunari</i> ematen dion garrantzia. Gaitasun hori garatuko bada, beharrezkoa da ikasgelan estrategiak eta trebetasunak probatzea; alde batetik, taldeko dinamika konplexuei aurre egiten ikasteko, eta beste batetik, denek erantzukizunak har ditzaten beren gain, taldearen helburuak lortzeko eta banakako ikasketa lortzeko.</p>
--------------------	---

Eginkizunak	<p>“Irakasleek lan hauek egin behar dituzte:</p> <p>Ikasgelaren helburuak zehaztea.</p> <p>Aldez aurretik erabakiak hartzea, ikasketa-taldeei, ikasgelaren konponketari eta taldean materialak banatzeari buruz.</p> <p>Lanaren eta xedearen egitura azaltzea ikasleei.</p> <p>Lankidetzazko ikasketako saioari hasiera ematea.</p> <p>Lankidetzazko ikasketako taldeen eraginkortasuna aztertzea eta, beharrezkoa izanez gero, esku hartzea.</p> <p>Ikasleen lorpenak ebaluatzea eta ikasleei laguntzea, taldeko lanetan lankidetzan aritzeko elkarrizketan.</p>
Antolaketa	Irakasleek hartu behar dituzte antolaketari buruzko erabakiak.
Baliabideak	Ez da aparteko materialik behar ikasgelan lankidetzazko ikasketa egiteko.
Ebaluazioa	Irakasleek taldeek egindako lanak ebaluatuko dituzte, bai eta, lanak egiteko, taldean ezarritako harremanak ere.
Heziketa	Hasierako prestakuntza behar da, antolaketari buruzko gaiak, gai orokorrak eta landu beharreko alderdiak aztertzeke.

Estrategiaren alde onak eta lorpenak, gaitasun handiekiko:

Lankidetzazko jarduera akademikoak egitean, gizabanakoek haien artean eta gainerako taldekideentzat onuragarriak diren xedeak ezartzen dituzte, norberaren eta besteen ikasketa alaitzeko izan dadin. Taldekideek elkarrekin egiten duten lan, haietako bakoitzak jarduera ulertu eta arrakastaz burutzen duen arte. Adimen-gaitasun handiko ikasleek besteekiko elkarrekintza-, lidergo- eta lankidetzazko-estrategiak garatzen dituzte. Trebetasun horiek oso garrantzitsuak dira gaur egungo informazioaren gizartean.

Lankidetzazko lanaren atzea, zenbait balio daude, hala nola elkartasuna, elkarri laguntzea eta desberdintasunekiko errespetua.

Esan behar da berdinaren arteko harremanetan ikasleek hau egiten dutela: gizarte-gaitasunak lortu, bulkada oldarkorrak kontrolatu, beste ikuspuntu batzuen berri izan, asmoak gehitu, sentimenduak adierazi eta errendimendu akademikoa hobetu.

Ikasleek irakasleekiko duten mendetasuna txikitzeke estrategia gisa erabiltzen da lankidetzazko ikasketa, eta ikasleek beren ikasketarekiko erantzukizun handiagoa izan dezaten, ikasgelako bizikidetzazko-giroa hobetzeko, eta elkartasuna, aniztasunaren onarpena eta beste balio batzuk garatzeko.

Proiektu-metodologia aurrera eramateko eta ikasleen interesari irtenbidea emateko ere erabil daitezke.

Adibideak eta/edo motak:

Jarduera bat egiteko lankidetzazko ikasketa erabiltzen denean, ikasleek denbora-tarte jakin batean egiten dute lan elkarrekin. Ordubetez egon daitezke lan, edo zenbait aste, ikasketa-helburuak lortzeko. Gainera, ikasle bakoitzak bere lan espezifikoak egin behar ditu. Lankidetzazko ikasketa-taldeak hainbat modutan egitura daitezke. Besteak beste, hau lortzeko erabiltzen dira:

Informazio berria ikasteko.

Araoak konpontzeko.

Zientzia-esperimentuak egiteko.

Konposizio edo gai bat lantzeko.

Proiektuak egiteko (edozein arlotakoak, diziplina artekoak...).

3.5. BERDINEN ARTEKO TUTORETZA

Estrategiaren deskribapena:

Berdinen arteko tutoretzarako, ikasleak bikoteka ipini behar dira. Bikotekideek harreman asimetrikoa izango dute (batek tutorearena egingo du, eta besteak, ikaslearena). Helburu berbera izango dute, eta biek jakingo dute helburu hori zein den (adibidez, curriculumeko ikasgai bat ikastea eta irakastea). Tutoretza irakasleak planifikatutako harremanaren bidez egiten da.

Estrategia garatzeko baldintzak:

Ezaugarriak	<p>Berdinen arteko tutoretzari esker, ikasleek ikastunen komunitate gisa ulertuko dute ikasgela. Komunitate horretan, irakasleak ikasleei zuzeneko arreta egiteaz gain, ikasleek elkarri laguntzea sustatzen da, betiere, irakasleak planifikaturik eta gainbegiraturik.</p> <p>Tutore-lana egiten duen ikasleak ikasi egiten du, eta tutoratuarena egiten duenak ere ikasten du, ikaskide tutoreak ematen dion laguntza pertsonalizatuari esker.</p>
Eginkizunak	<p>Berdinen arteko tutoretzari esker, irakasleek denbora gehiago izan dezakete, ikasleen lanari behatzeko eta bikoteen aurrerapenak idatziz jasotzeko. Eskatzen duten bikoteei laguntzeaz gain, horixe da irakasleen zeregin nagusia.</p> <p>Ikasleei dagokienez, tutoratuak eta tutoreak ikasten dute; tutoratuak, tutoreak ematen dion laguntza etengabe eta egokiagatik, eta tutoreak, berriz, edukiari buruzko ezagutza handiagoa lor dezakeelako.</p> <p>Garrantzitsua da gaitasun handiagoko ikasleek beren burua <i>emaitzat</i> ez ikustea; izan ere, ohartu behar dute ikaskideei irakatsiz ikasteko aukera gehiago dituztela.</p>
Antolaketa	<p>Ikasleei beren eginkizunak eta lanak azaldu ostean, hasiera emango zaio jarduerari. Esaterako, estrategia hori burutzeko, urrats hauek egin daitezke:</p> <p>Hasierako fasean: ikasle tutoreak eta tutoratuak zein izango diren aukeratzea.</p> <p>Tutoretza-saioak diseinatzea (edukiak, oinarritzko egitura, ebaluazio-sistema, etab.).</p> <p>Bikoteak osatzea: ikasle tutorea eta tutoratua.</p> <p>Tutoreen prestakuntza.</p> <p>Saioak hastea, irakasle batek gainbegiraturik.</p> <p>Tutoreek beren konpromisoari eustea. Horretarako, bilera formalak egin eta kontaktuak izango dituzte laguntza-irakasleekin.</p> <p>Tutoretza-mota honek curriculumean egon beharko luke; hau da, eskola-orduetan egon eta ebaluatu beharko litzateke.</p>
Ebaluazioa	Behaketa-tresna txiki baten bitartez, erraza da etengabeko ebaluazio ona egitea.
Heziketa	Saioei hasiera eman baino lehen, beharrezkoa da ikasleei azaltzea zer proposatzen zaien eta zergatik. Gainera, tutorearen eta tutoratuaren eginkizunen ondorio diren jokaerak azalduko zaizkie. Halaber, zenbait jarduera erabiliko dira ikasleek zer zaletasun, interes eta abar dituzten esan dezaten.

Estrategiaren alde onak eta lorpenak, gaitasun handiekiko:

Berdinen arteko estrategiak hezkuntza-balioa ematen die ikasle guztien arteko elkarrekintzei, eta elkartasun- eta soziabilitate-balioak garatzen laguntzen du. Berdinen arteko tutoretza oso onuragarria izan daiteke gaitasun handiko ikasleentzat; izan ere, metaikasketa-ariketa bat da, eta horretan, ikasle horiek beren ulertze-prozesuei buruz hausnartu beharko dute. Gainera, taldean sartzeko oso beharrezkoak diren gizarte- eta emozio-gaitasunak erabili beharko dituzte.

Adibideak eta/edo motak:

Berdinen arteko tutoretza herrialde askotan erabiltzen da, eta beraz, askotariko erabilera-motak daude. Esaterako, adin desberdineko ikasleen arteko tutoretzak egiten dira, edo adin bereko edo ikasturte bereko ikasleen artekoak. Azken modalitate horretan, bi tutoretza-mota bereizi behar ditugu: rol finkokoak eta elkarrekikoa (hots, tutoreak eta tutoratuak rolak aldi berean behin aldatzen dituztenean). Halaber, berdinen arteko tutoretzaren kontzeptua hain zabala denez, beste hainbat egoera azter ditzakegu; esaterako, familia bereko kideek osatutako bikoteak (aita/ama izan daiteke seme-alabaren irakurmen-tutorea), egituratutako formatu bati jarraituz.

3.6. CURRICULUMA ABERASTEA

Estrategiaren deskribapena:

Estrategia honetan, curriculum orokorra egokitzeko neurriak aplikatu edo programa espezifikoak garatzen dira. Programa espezifiko horiek martxan jarri aurretik, curriculumeko edukien sakontasuna eta hedadura aldatzen dira bai eta lan-metodologia ere.

Estrategia garatzeko baldintzak:

Ezaugarriak	<p>Irakaskuntza pertsonalizatzea du helburu, eta programa ikasleen ezaugarrietara egokitzea.</p> <p>Irakasleek pixkanaka-pixkanaka egokitzen du ikasgelako ohiko programazioa, ikasle bakoitzak bere gaitasunen arabera erritmoan eta mailan egin ditzan ikasketak.</p> <p>Hezkuntza-alderdi guztien artean ahalik orekarik handiena egon dadin, eta proposatutako esparru teorikoarekin bat etorriz, aberaste-ereduak adimen anitzen eskeman oinarritu behar du. Eskema horrek haur jakin baten helburu zehatzak hautatzeko aukera ematen du.</p>
Edukiak	<p>Edukiak aldatuko dira, ikasturteko edo zikloko edukiak osatuz edo aldatuz. Curriculumeko edukiak sakon eta luze garatuko dira.</p> <p>Loturak ezarriko dira ikasgai bereko edo ikasgai desberdinetako gai desberdinen edukien artean.</p> <p>Garrantzitsua da buruz soilik ikasi behar diren edukiak (informazio asko) alde batera uztea; haien ordez, erlaziozko edukiak (informazio sakona) erabiliko dira.</p> <p>Edukiak aukeratzekoan, irizpide hauek izan behar ditugu kontuan:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikasleek dagoeneko dakizkiten edukiak identifikatzea, haiek ezabatzeko. • Ezinbesteko edukiak zein diren zehaztea, haiei lehentasuna emateko. • Ikasleen interesak aintzat hartu diren aztertzea, sartzeko. • Aukera osagarriak sartzea, oso ikasketa-erritmo azkarra duten ikasleentzat.
Jarduerak	<p>Aberaste-jarduerak egiterakoan, kontuan hartu behar da ikasleek zer gustu eta motibazio dituzten, lan egiteko konpromisoa hartzen dutela bermatze aldera.</p> <p>Egiteko eta adierazteko zenbait aukera ematen dituzten eta zailtasun-maila desberdinak dituzten jarduerak egitea.</p> <p>Askatasunez hautatzeko aukera ematen duten egitea, ikasleen gaitasunak eta interesak kontuan harturik.</p> <p>Ikasgelan sormena eta pentsamendu dibergentea sustatzeko jarduerak proposatzea.</p> <p>Zabaltzeko jarduerak aukeratzekoan, irizpide hauek izan behar dira kontuan:</p> <p>Antolatze modurekin bat etortzea (txokoak, talde malguak...).</p> <p>Jarduera orokorren errepikapenak ez izatea (beti berbera ez egiteko).</p> <p>Ikuspuntu autonomo batetik egin daitezkeen jardueretan hausnartzea.</p> <p>Jarduera erakargarriak izatea.</p> <p>Banakako jarduerak eta talde txikiko jarduerak bateragarriak izatea.</p>

Eginkizunak	<p>Irakasleek curriculuma egokituko dute, ikasleen beharrak asetzen dituzten aberaste-jarduerak antolatuz.</p> <p>Irakasleak ikasketaren gidariak dira, eta ez, derrigorrez, ezagutzaren iturriak.</p> <p>“Irakasleak ikasleak gidatu eta prestatu behar ditu, ikasleak beren kabuz ikasteko gai izan daitezten. Irakaslea eredugarria eta bitartekaria izango da, eta gaitasun handiko haurrei lagundu behar die haien heziketarako oinarritzakoak diren helburu batzuk lortzen.</p> <p>Eredua den aldetik, irakasleak hau irakatsi behar du: nola pentsatu lan bat egiten den bitartean; nola aplikatu estrategiak; zer egin ez dakigunean, zer egin; nola hartu aurrea ikasketa-arazoei; eta nola planifikatu arazoak konpontzeko irtenbideak” (Grange, 2007-2008).</p> <p>Ikasleek, heldu baten laguntzarekin, aktiboki eta autonomiaz hartzen du parte beren ikasketa-prozesuan.</p> <p>Halaber, garrantzitsua da ikaslearen hezkuntza-prozesuarekin zerikusia duten guztiek (beste irakasle batzuk, ikaskideak, senideak, beste profesional batzuk...) parte hartzea egokitzapenen diseinuan.</p>
Antolaketa	<p>Gaitasun handiko ikasleak ohiko ikasgelan egongo dira, gainerako ikaskideekin, eta behar duten hezkuntza-arreta emango zaie, curriculuma haien beharretara egokituz.</p> <p>Antolaketa irekia izango da, eta horretarako, mahaiak lerroetan jartzeari utziko zaio.</p> <p>Txokoak egokiak dira irakasleek beren lana egiteko. Irakasleak talde txikietan elkar daitezke, beren interesetan sakontzeko eta ikerketak edo arte-jarduerak egiteko.</p> <p>Txoko horietan, sakontzeko materiala antola daiteke: kontsulta-materiala, material teknologikoa, ikus-entzunezkoa...</p> <p>Talde-lana eta banakako lana konbinatzea, ikasleen garapen pertsonaleko, sozialeko eta kognitiboko helburuei euste aldera.</p>
Ebaluazioa	Lan bakoitza prozesu-, eduki- eta produktu-terminoetan aztertu eta ebaluatuko da.

Estrategiaren alde onak eta lorpenak, gaitasun handiekiko:

Estrategia hau denetan inklusiboena da, haren helburua baita gaitasun handiko ikasleak aberastea, maila intelektualean, baina baita garapen sozial eta emozionaleko alderdi guztietan ere.

Porto (1990) egilearentzat, estrategia honek abantaila hauek ditu:

Ikasketa-jarduerak maila eta erritmo zehatzagoetan antolatzea.

Edukiei buruzko informazioa handitzea.

Ikasleak maila handiko xede eta asmoak lortzera animatzea.

Pentsamendu sortzaileko eta arazoak konpontzeko esperientziak ematea.

Ikasketan independentzia eta auto-gidaritza garatzea.

3.7. ARAZOETAN OINARRITURIKO IKASKETA (AOI)

Estrategiaren deskribapena:

Ikasketa-metodo honek benetako eta ezagutza eta gaitasun berriak lortzeko eta eraikitzeko testuinguruan jarritako arazo bat du abiapuntu.

Printzipioak

Ikasleen eta ingurunearen arteko elkarrekintzaren bidez lortzen da ikasketa. Ikasteko interesa benetako behar edo arazo baten ondorio da (gatazka kognitiboa). Ezagutza norberaren eta gizartearen prozesu baten emaitza da. Ezagutza adierazgarria gizabanako eta talde bakoitzak interpretazio desberdinetatik sortzen da. Batera heltzen zaie teoriari eta praktikari. Proposatutako arazoak diziplina anitzetik aztertzen dira. Zer ikasketa-premia dauden jakitea sustatu nahi da, eta ikasleengan oinarrituriko prozesu bat da. Talde txikietan egiten da lan (5 edo 6 ikaslekoak), eta irakasleak ikasketaren bideratzaileak dira. AOlan, ikasteko gaitasun eta baliabide batzuk garatzen dira. Ikasleek beren ikasketa zuzentzen dute, informazioa bilatuz eta kritikoki kudeatuz. AOlan, banaka eta taldeka egiten da lan, eta estrategia ikertzaile eta kritikoak ematen dira.

Erreferentziak

McMaster Unibertsitatea, Kanada [<http://cl.mcmaster.ca/resources/pbl.htm>]
Aalborg-eko Unibertsitatea, Danimarka [<http://www.mpbl.aau.dk/>]
Unibertsitate-irakaskuntzako aldizkaria. 2011ko urtarrila-apirileko REDU. 9. liburukia, 1. zk. Santiago.

3.8. IE-A LORTZEKO IKT-AK ERABILTZEA

Estrategiaren deskribapena:

Adimen-gaitasun handiko ikasleek Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak nola erabili ikasten dute, haien bidez Ikasketa egokia lortzeko eta Ezagutza handitzeko.

Estrategia garatzeko baldintzak:

Eskola-adinean dauden haur eta gazteen errealitatea komunikazio-dentsitate handikoa, mezu eta igorle asko baitaude.

Duela urte batzuk, erakunde batzuek soilik *esaten zuten* zer jakin edo zer egin behar zuten ikasleek. Termino tradizionaletan, hauek ziren: irakaslea, ikastetxetik; apaiza, elizatik; alkatea, botere politikoaren ordezkari gisa; familia; eta lagunak. Erakunde horiek zuten eraginik handiena gazteen heziketan, eta *hezkuntza*-mezuak emateko legitimitasuna onartzen zitzairen. Gaur egun, komunikazio-inputak jasotzeko aukerak esponentzialki ugartu dira; izan ere, zenbait egilek gure ingurunea intoxikatuta dagoela uste dute.

Egunero, ikasleek mezu-kantitate handia jasotzen dute, eta mezu horiek askotariko iturrietatik iristen zaizkie. Askok dibertsifikatu dira ikus-entzunezko bideei esker, eta hainbat kanal, sare eta hedabideren bidez ematen dira mezuak. Gainera, ikasleen heziketaren ardura duten helduak itzalgune batean geratu dira. Helduen zirrikitu digitala handia da, eta gainera, ez dute horrekiko jarrera egokia, eta gazteen artean saltzen eta hedatzen diren *gadgets*en bilakaeraren ondorioz, zirrikitu hori gero eta handiagoa da.

Zer behar dugu hezitzaileok egoera honetan?	Ezinbestekoa da tresna eta teknologia berriekiko jarrera irekia eta harkorra izatea. Gainera, beharrezkoa da giza komunikazioko oinarrizko elementuak argiak izatea. Horri esker, informazio toxikoak ez digu eragotziko ikustea ikasketa, pertsona bakoitzaren neurrirakoa, eta lortzen eta behar bezala kudeatzen duten ezagutza oinarrizko bi elementu direla egungo edo etorkizuneko teknologiak erabiltzeko.
Zer ekarpen egin dezakegu?	Oinarrizko irizpide argiak izan behar ditugu, ikasleei erabilera teknologikoak erabiltzen laguntzeko. Horrez gain, pedagogia kritikoa erabili behar dugu, eta tresna berriak probatzearekiko irekia. Hori guztia funtsezkoa da pertsona bakoitzak –heldua izan eta hezitzaile sentitu, edo gaztea izan eta ikastun sentitu– komunikazio-ahalmenean aurrera egin dezan.
Ikasi eta erabili beharreko edukia	Subjektu igorlea naizela jakitea, eta teknologia berriek eta sarean egunero handitzen eta ugartzen diren tresna eta zerbitzuek –bai eta doako eskaintzek ere– komunikazio-aukera ematen dizkidalatela. Gizarte-sareak dira adierazlerik onena; azken urteetan, gure pantailan lehertu eta ikasleen bizitzan sartu dira, gero eta gehiago, ohartu badira, ala ez!
	Sarea ekosistema moduko bat da, <i>erabiltzeko</i> eta <i>ondo pasatzeko</i> . Ekosistema hori ezagutu eta erabiltzen jakin beharra dago. Ulertu behar da sarean sartzen ditugun edukia eta ezagutza behin eta berriz nahasteko, askatasunez erabiltzeko eta besteekin elkarbanatzeko kultura dagoela. Informazioaren ekoizle eta erabiltzaileak gara, eta besteekiko elkarreragina dago; hartu eta eman egiten dut, bi zentzuetan, denok aberasten gaituen komunikazio-ugaritasun batean.
	Jarrera kritikoa, irekia eta konstruktiboa izan behar da gure zerbitzura jartzen ditugun tresnen (egungoak edo etorkizunekoak, doakoak edo ordainpekoak) aurkikuntzarekiko eta erabilerarekiko, eta tresna horiei buruzko erabakiekiko; izan ere, ikasleen eta berdinen eta/edo hezitzaileen arteko komunikazio-emia zabaltzeko behar ditugu tresna horiek, eta elkarren ezagutza aberasteko.
Ikastunen eta irakasleen eginkizun berriak	Gizarte-sareen bidez sortzen ari den gizarte-ekosistema berritzaileari esker, pertsona bakoitzak ikasketa- eta irakaskuntza-egoeretan eta, oro har, bizitzan zer eginkizun dituen berriz pentsa daiteke. Izan ere, berriz pentsatu behar da, nolabait.
	Egunero sarean agertzen den adimen kolektiboak (gori dauden, gizartearentzat garrantzitsuak diren eta hedabideetan etengabe azaltzen diren gaiei buruzko ideiak, iritziak, elkarrekintzak eta mugimendu kolektiboak) gizarte-egituran beste eginkizun batzuk sortzen ari direla adierazten du. hezteko eta ikasteko eginkizunak edo kontatzeko eta entzutekoak ez dira hermetikoak; izan ere, kalean, sarean eta hezkuntzan, kontakizun berriak daude, elkarrekin komunikatzeko eta ezagutza eta gizarte-aurrerapena denon artean eraikitzeko modu berriak baitaude.

Estrategiaren alde onak eta lorpenak, gaitasun handiekiko:

IE-IKTek gaitasun handiko ikasleei ematen dizkieten aukerei esker, espazio- eta denbora-oztopoak gaindi daitezke, ikasgela tradizionaletan espazioa eta denbora mugatuagoak baitira. Orain, sareei esker, inoiz baino errazagoa da urrutitik elkarlanean aritzea eta jarduerak egitea beste ikastetxe, hiri eta ingurune geografiko edo kultural batzuetako pertsonekin. Eta edukia nahasteko prozesuan, ekarpen handiak aurkitu eta egin daitezke, lehen deskribatutako bi zentzuetan, joan-etorriko bidean; hots, informazioaren eta ezagutzaren ekoizle gisa, eta beste pertsona batzuek sortutakoaren erabiltzaile, milaka kilometrora daudela edo hormaren beste aldera daudela.